

Laratzaren gaineko esaera zahar, igarkizun eta sineskerak

JABIER KALZAKORTA*

ZER DEN LARATZA

Garai bateko euskaldunen etxeetako sukaldeko sua, bazter batean egon beharrean, sukaldearen erdi erdian omen zegoen. Sua zen etxeke bihotza eta suaren inguruan biltzen ziren etxekeak. Sua biziemailea zen eta suak bizi zituen pertsonak. Suak familiak biltzen zituen bere inguruan, eta, gorputzak behar duen berotasuna ezezik, izpirituak edo gizagogoak behar zuen berotasuna ere eskaintzen zuen. Herri bateko familiak ere suka kontatzen ziren. Herri batean ehun su pizten baziren, ehun familia zeudela adierazten zuen¹. 1596 argitaratu zen euskal errefrau-liburu zahar batean, honelaxe agertzen da 237 errefrauak Su baco efea, gorpuz odolbaguea. Sua, beraz, etxearentzat, gorputzarentzat odola bezalakoxea da. Guk “beheko sua” edo “behesua” ezagutu dugunean, sukaldeko bazter batera bazterturik ezagutu dugu. Beheko suan, denok dakigunez, badago laratza deitzen dugun burdinezko kate kakodun bat. Burdinezko kate honetako kakoan zintzilikatzen dira ontzirik handienak, hala-nola galdarak eta mazkiluak². Ontzi txikiagoak, eltzeak

* Instituto Labayru, Derio

¹ BARANDIARÁN, José Miguel, “La población de Zugarramurdi y de sus tradiciones” in *Homenaje a Odon de Apraiz*, 59-105 or. *Zugarramurdi'ñeun etxe die sua pizten den etxeak* “En Zugarramurdi son cien las casas en las que se enciende el fuego”. Esto me decía Ganixon de Ibarsoro-beherea (Sara); pero su yerno, que era de Zugarramurdi, contaba más casas, puesto que ascienden a 121 los nombres de casas habitadas que figuran en la lista que me dio.

² Ontzi handi heldulekudunak zintzilikatzen ziren laratzaren kakotik. Lapiko edo eltzeek estalkia dutenez gero, suaren gainean, gehienetan ertz baten jartzen ziren. Estalkirik ez dutenak mazkilo edo mazkelua edo mazkulua da Bizkaiko mendebaldean, erdaraz “caldero”. Juan Manuel Etxebarriak Zerberiorako *maskillueta galdara* eta *txarri-galdara* ontziak ziren laratzaren kakotik eskekitzen zirenak. Hona literatura idatzian gelditu den adibide polit bat LARRAKOETXEA, Bedita “Olabide”k apaizei eka-

eta lapikoak, dirudienez, ez ziren zintzilik jarten. Laratzeko kakotik zintzilikatzen ziren galdaretan behiesnea egosten zen, gehienetan. Behiesnea egostez landa, beste hainbat egosketa-modu ere egiten ziren³. Badira gure artean laratzanolakoa zen esan dutenak. Badira gure artean laratzaren deskripzioa egin dutenak. Neure herritar batenganik, markinar batenganik, hasiko naiz zehaztasun jakingarri bila. Neure herritarrori Juan Ibarzabal, “Buztarri” izenez ezaguna den bertsolaria dugu. Honelaxe dakar Nire aztarrenakbere liburuan⁴: Lehen etxe danetan egoten zan beheko sua be eta tximiniatik behera kate bat egoten zan, baserrian laratza egoten zan tresna bategaz, hantxe eskegiten eben galdarea esnea egosteko. Segi dezagun gure artean hain lan politak egin dituen Julian Alustizarekin: “Lehenik sutokia dator: sua egiten den lekua, noski; “su-etxea” Arantzazun, eta erdi-erdian, tximinitik behera, kate batetik zintzilik gelaatza daukazu bere gako eta guzti; pertzak eta beste, suaren gainean paratzeko izan ohi da; Laratza ere deitzen zaio”⁵. Hona dakargun hirugarren testigantza Urkiatar P.-ren lumatik dator, hona zer dioen: Pertza ta gañerakoak suburuan esegita eukitzeko burniak zioen Euskal Esnalean argitaratu zuen artikulu batean⁶. Laratzaren deskripziorik politenetako bat J. R. Erauskinek, Txirrita bertsolariaren loba argiak, egiten du: Eltzea edo tupia suaren parean edukitzeko, malla aundiak zituen kate aundi bat kako batekin, nai zan tamañan edo alturan tupia edo eltzea zintzilik jartzeko.

*Kate ta kako oni laatza deitzen zitzaion. An egoten zan ederki asko beztua, amaika su ta ke izaten zen bere inguruan*⁷.

Perpetua Saragetak ere, Nafarroako Mezkitzen bizi zen idazle bizkorrak, haurra zenean ezagutu zuen sukalde honela deskribatzen du: *Ni aurre nitzelaik sukaldean egoten ze supezterra, sukalde zolatik amar edo amabi zentimetro gorago sukaldeko zola zurezkoa eta bagoa ze, eta supezterra baldosa gorriekin egina ze. An inguruan egoten zire endoi edo pala autsaren atratzeko, bertzuña sue ateratzeko; ukullu edo tenaza egur aundiak biltzeko suaren ganera; tximinitik dilinden kate lodi bat (iduri zue beyendako izaten zena estrabilean) beretik dilinden egoten ze bezko aundi bat txerrien bazkaz betea egosteko*⁸. Deskripzio honetan sutondoan agertzen ziren tresna askoren izena eta

rritako laguntza” in *Euzko Gogoal* 1958, 534 or “*laba-sua be egin-barri da ta azpilan dagoz tremes, pami-txa, ogi arto ta yaike zapalak; laratzuko kakotik dingilizka dago supuruan maskillua bei-esne zuriz betetik noz irakin eta gora egingo begira; gaztañak be danbolinean erreta dagoz, gaztaña-gorringo gozoak egiteko*”

³ Odolkiei egosi arin bat emateko ere galdarak erabiltzen ziren. Bizkaian Mungialdean “mortzillek galdrostu” esaten dutena edo Urduliz aldean “mortzillek gardostu”. *Galdrostue* do *gardostudelakoa* erdarazko “escaldar” da.

⁴ IBARZABAL, Juan, *Nire aztarrenak*. Bertsozale Elkarte. Hika-Mika Imprimategia, S. L. Gizaburuaga. 19 or.

⁵ ALUSTIZA, Julian, *Euskal baserriaren inguruan* Jakin 1985, 50 or.

⁶ URKIATAR P., “Gure nekazarien tresna ta gañerako gauzen izenak” in *Euskal Esnalea*, 1930, 6-12or. Oñati aldeko hitzak bildu zituen artikulu honetan. Beraren hitzak hona aldatuz “tresnen izenak Oñati, Gipuzkoa’ko txoko zoragarri ontan erabiltzen diran bezelaxe jarriko ditut. Tresnak ere inguru abetan erabiltzen diranak, Euskalerrri’ko guzi-guziak artzeko gogorik gabe”. Eskaratz edo sukaldoko tresnarik garrantzitsu eta begi bistakoena izan arren, zenbait hitz-zerrendetan ez da agertzen. Santiago de Anunciación Markinan egon zen karmeldarrak, esaterako, ez du aipatzen bere “Baserriko-tresnak” *Euskal Esnalea* 1931, 53-60 orrialdeetan.

⁷ ERAUSKIN, J. R., *Aien garaia* Auspoa Liburutegia 1975, 17or.

⁸ SARAGUETA, Perpetua, “Mezkitziko etxe barnea” in *Anuario de Eusko Folklore* 1982-83, tomo 31, 36or.

zertarako erabiltzen ziren dio. Laratz hitzik ez du aipatzen baina badakigu *tximinetik dilinden kate lodi bat (iduri zue beyendako izaten zena estrabilean) beretik dilinden egoten ze bezko aundi bat txerrien bazkaz betea egosteko hori laratza dela.*

Hona hemen orain arte jarritako testigantzetatik atera dezagun ondorio-rik nabarmenena: Euskal Herriko baserrietako sukaldeetan izan den (burdinezko tresnarik) enblematikoena izan da laratza. Garai bateko beheko sua zegoen leku guztietako tresna, hain zuzen. Inportantzia handi horren lekuko dira laratzaren inguruan izan diren esaera zahar, sineskera eta ohitura zahar-erak ere, gaur den egunean, zoritxarrez, laratzaren zerbitzuaz edo emendioaz bezala, galbidean edo galdurik daudenak leku askotan.

LARATZAREN BERRI KOPLA ZAHAR ETA BERTSOETAN

Kopla zahar eta bertsoetan mila aldiz agertuko zuen bere burua laratzak, inongo dudarik gabe. *Auspoa* liburutegiko aleak ez ditugu orraztu *laratz* hitzaren bila. Neure memoriako ganbara txikira jo behar izan dut, ezinbestez. Ezkerra Oiartzungo bertsolari ospetsuak Gaztelerriko ibilerak kontatzen dituen bertso sail batean, gauza harrigarrien berri ematen du. Kontu harrigarrietako bat, Erdal Herrietako sukaldeetan ez hausporik, ez laratzik agertzea zen. Honelaxe dio:

*Ango sukalde bazterrak kuriosuak
Latzik agiri ez, palta auspuak,
Aulki senduak
Iru edo lau arri kintalekuak
Ango sokuak
Ezkondu ezkerotzik garbitzekuak⁹.*

Errose Bustintzak, “Mañariko” idatzizenez, bildu zuen bertso-sorta ironiko polit batean honelakoxe ale hau agertzen da:

*Bart arratsian aritu nintzan
nere atorra garbitzen,
tximinizko oratutikan
utzi dizkiñan zikatzen
Gau-erdirarte egondu nintzan
polixoi berrija josten,
nik ikusitta mutil gazten bat
ote dan enamorutzen.*

“Tximinizko oratutikan” delakoa, ez da besterik *tximiniko laratzua* baino. Neskatila batek bere atorra garbitu ondoren tximiniko laratzuan jartzen baldin badu, begi bistakoa denez, erabat kedar beltzez zikinduko zaio. Burugabekeria galanta, beraz. Modu horretara nola arraio enamoratu da mutil gazte bat tankera horretako neska burugabe batengana?

Kopla zaharretan ez dugu lekukotasun asko aurkitu¹⁰. Behin “notak”, edo, etxeko bizilagunei, nagusi jaun, etxeko andre, zaldun gazte eta dama gaztea-

⁹ XXX: “Kastilla’ko kontuak” in *Eguna* 92 zenbakia. 1937 joraila 18 or.

¹⁰ Etxeko tresnak, koplako irudian agertzen diren hainbat ale interesgarritan ditugu, esaterako, *Etxean eder ohako/haurra sortzen deneko* edo *etxean eder gerrena/etxekandere lerdenaedo etxean eder kortzeirul/dabiltzarian inguru*. Guzti hauek Baxenabarreko eske-kopletako irudia osatzen dute. Irudi

ri beren koplak kantatu ondoren, eskabidea dator. Eskabidekoa da Bizkaiko koplak hau:

*Gure (i) etzien laratza,
au sa samiaren latza.
Kuartillu terdi edango geunke
ardau zuritan balitza.*

Kopla honetan *laratz* hitza eta *latz* oskide ditugu. Ondo datoz adierazi nahi den ideiarekin ere. Koplariari, kantuan ibili ondoren, eztarria edo sama sikatu zaio, behesuko garretan siku eta legor dagoen laratza bezain siku eta legor du berak eztarria. Horrexegatik eskatzen du ardao zuria. Antero Apaolazak Trueba idazlearen “El judas de la casa” lana euskarara moldatu zuenean, honelako pasartea jarri zuen: *Andikan ordu erdi batera zetozen Koroson barrrena bi gizon, elatzean zintzilika dagoan abarka baño igarragoak, eta ukalondotatikan ere berriketa zerioela*¹¹. Surik baldin badago, laratza ondo siku eta kedartsu egon ohi da, eta, bertan sikatzera uzten diren abarkak ere sikatu eta igartu egiten dira berotasunean.

LARATZAREN BERRI EUSKAL OLERKI LANDUETAN

Ez dugu, zoritxarrez, sutako kate honen gaineko sinbologiaren berri ematen duten biltzaile, ez aztertzaile zaharrik. Laratzaren garrantzia garai zaharretan oraintsuagokoetan baino indartsuagoa izan arren, ezer gutxi aurki dezakegu. Joan den mendeko gure ohituren berri eman zuten Vinson, Wentworth Wester¹², Çercand eta abarrengan ezer gutxi aurkitu dugu. Literatura da, zeharbidez, laratzaren sinbologia ematen digun bide bakarra. Herri-literaturan zertxobait aurkitu dugu, batez ere “esaera zahar” eta “igarkizunetan”. *Laratz* hitza agertzen den esaera zaharrena, edo hobeki esan, *laratz* hitza erre-frau batean dokumentatzen den garai zaharrena XVII mendea dugu. Oihentek bildua da: 369-*Oreina larrean, berza larazean* Itzulpenean, beharbada, zeharbidezko berriren bat espero zitekeen, baina honela dator: *Tandis que le chauderon, pour faire cuire le cerf, est pendu à la cramailiere, le cerf court parmy le desert*. Laratzaren zeharbidezko sinbologia salatzen duten alerik zaharrene-takoak joan den mendetako zenbait olerki izan daitezke. Hona, esaterako, Klaudio Otaegik¹³ “Zubietako umantai” bertso sailean dakarren ale hau:

*Zer dezakean naitasun itsu
Batek laratzenganako!
Zer amodio irazekiak*

hauek duten koplak-errezkadak hainbat lekutan agertzen dira, esaterako, (*Príncipe de Viana* euskal gehigarria, diciembre 1966, 1or.). Julian Alustizak guk aurkitu ez ditugunak dakartzatza *Euskal baserriaren inguruambere* lan bikainean, 48 orrialdean. Bi irudiak, guk gaizki ulertu ez badugu, *etxean eder behial mur tur beltz, adar haundia* da bata, eta, bestea, *etxean eder sukaldeal bero ta garbi garbia*. Nik behin baino gehiagotan pentsatu dut koplak irudietako bat, inon aurkitu ez arren, honelako zerbait izan behar-ko lukeela: *Etxean eder laratzal etxeoandre maratza*. Bi hitz *laratz/maratz* hauetako hoskidetasun be-tea edo majikoa lortzeko.

¹¹ APAOLAZA, Antero, *Patziko Txerren* Auspoa 8 zenbakia, 1962, 66 or. Juan San Martinen edizioan.

¹² Esku artean dudan *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque* argitaraldi berrian 1998-koan, 108 orrialdean hasten denean “Les vieux noms latins de ces dieux de la maison ou du foyer *lar laves* se trouve conservédans presque toutes les langues...”. Ez dut aurkitzen euskal laratzaren gaineko berririk

¹³ URKIZU, Patri, AZURMENDI, Xabier, *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)* Etor Argitaletxea, 1991 138or.

*Jaioterrirenganako!
Ain zan aundia, kabugabea,
Zutena Easonganako,
Eze, aski da zentzuren fitsik
Ez duen bat arritzeko.*

Badu idazle berak beste aipamentxo bat “Amerikatik” lanean:

II-*Gogoan ditut zure sukalde.*

*Laratsgela ta ganbarak,
Tegi, abere, zakur txitoak,
Eta lanerako tresnak,
Pilotan nere aurtasunean
Aritzen nintzan paretak⁴.*

Hiribarren olerkari ugariak ere, Ganetxiki ikazkinaren eta Kattalin main-guaren solasaldi umoretsuan, honelaxe dio:

VIII *Zer zoriona guretzat, lastozko jauregi batean!
Ni errege, zu erregina, laratzarenaitzinean!
Ni xirolarekin, zu kantuz, biek errepikatzean!⁵*

Jaioterriarenganako maitasuna den bezalaxe, bada laratzarenganako edo etxearenganako maitasuna ere. Laratz kasu honetan ez da burdinezko kate kakoduna, beste zerbait baizik. Geroago aztertuko dugun zentzu zabalago bat du *supazterrarena*, erderetako *foyer* edo *hogar* direlakoena, alegia. Esangura hori ematen bide dio Goyhethek bere alegietako batean. Hona hemen “Gathu eta bi garraioac” alegiko adibidea:

*Gathu bat adiñez berdiñ
Garraio gazte batekiñ,
Haren hurbillean çuten aloyitu,
Çuenaz guerostic sehasca kitatu:
Cayola otharretic net hurbill çagoen,
Biec bethitican laratz bera çuten⁶.*

Klaudio Otaegik laratz eta jaioterriaren nortzeaz hitz egiten digu. “Maitasun” hitzak, maitasuna zaion nor edo zer horri eskatzen duen -gana(ko) atzizkiak hornitua.

Felipe Arrese Beitiak ere, zeharbidez, laratza dela nor nolakoa den jakiteko biderik ziurrena adierazten du bere sorkari batean. Sorkariaren izenburua ere ez da nolana hikoia, “Gizon kanpoederra, etxean gerra”¹⁷:

*Baña, itauntzen bada neskatxen artean,
Ea etxeakoandrea ona dan etxean,
Ez dabe danak, Paulo, baietz erantzungo,
Dongak dirala batzui deutsezu entzungo;
Etxean ikusiten dalako barrua,
Ikustean bakotxai bere jeniua.
Ondo ezaututeko zein dan zelakua,
Testigutzat nai leuke artu laratzua;*

¹⁴ Lan aipatua 360or.

¹⁵ Lan aipatua 203or.

¹⁶ GOYHETCHE, Leonce, *Fableac edo aleguiac Lafontainenetarie berechiz hartuac*, Baiona, 1852, 310

or.

¹⁷ ARRESE BEITIA, Felipe, *Olerkiak*, 1956, 439or.

*Azala euki arren ederra sagarrak,
Iñoz euki oi dabez biotzean arrak.*

Laratz bezalako testigurik ez dago nor nolakoa den jakiteko. Hori berori adierazten dute Azkuek bildu zituen *laratza bezin segür* eta *laratza bikain segur* Zuberoa-Erronkarietako erramoldeek.

LARATZA HITZ LAUZKO IDAZLE KLASIKOETAN

Euskaldunen esaera zaharretako bat, eta era berean zabalenetako bat, “Etxeko sua etxeko hautsaz estali behar” da. Hainbat testigantza ekar ditzakegu. Adibide moduan Oihenartena jarriko dugu bakarrik 170-*Execo fua Execo hauzas estal*. Itzulpenean honelaxe dakar: *il faut couvrir le feu de la maison avec les cendres de la maison*. Maila denotatiboan ohitura baten berri ematen du, euskaldunek oherakoan sua estali egin ohi zutela sutako hautsez, alegia. Maila konnotatiboan edo goragokoan, etxeko gauzak, hau da, etxekoei gertatu edo sutondoan esan edo erabili ohi diren kontuak eta segetuak ez direla kanpora atera behar. Esangura bera du Oihenarten beraren 641-*Mahaian errana bego gorderic dahiailan*. Itzulpen zuzenenan *Ce qui est dit à la table demeure caché dans la nappe*. Pentsatzekoa da *laratzak ezkutatu behar dituela etxeko gauzak* edo esango zela Bizkaian Prai Bartolomeren garaian, idazle markinarrak honelaxe baitio *Icasiquizunac I* pasarte batean otseinen egin-beharraz:

*Oneec dira cristinaubac, otseginen cer eguin nausijac euren ugazaben ondrraco, ta onerarraco. Onezaz ostian otseguinac estimau, ta maite izan biar davee echia, ta echeco gentia, guztijac pamelija batecuac dirian leguez. Euren ontasunari jagoca, echian jazoten dirian paltaac, descuiduac, ta isilgauzaac, laatzac ezcutau biar ditubanac, campuan ez esatia, ta ugazaben paltaac, genijuac, descuiduac, asarriac, ta echeco pamelijaren arteco, casic popuertzaco argaltasunac, ta gueurezco miserijaac, ibiltia*¹⁸.

“Laratzak badaki nor nolakoa den” esaera ezaguna da Bizkai-Gipuzkoetan. Antzeko esaerak erruz daude gaur den egunean ere. Kanpoederrak etxean nortasun bat erakusten du eta kanpoan beste bat. Laratzak ezagutzen du inork baino hobeto persona bakoitza, baina laratzak, geroxeago ikusiko ditugun igarkizunen arauera, badu “ezpain makurra”, baina ezin du hitz egin. Esan ohi da ezkutuko gauza asko aterako lirakeela kanpora, laratzak hizketan baleki. Hori berori adierazi nahi du Agirre Asteasukok pasarte honetan:

*Baña baldiñbadaquie errian batzuec, edo ascoc, nola vici ceran, poztuco dira oec, bide zucenean sartu cerala ecustean. Eta ez sinistu ez daquiela inguruco echeetan vici diranac zure contuen berri; galde ezperen iturriai: galde labe-aurrai: galde sucaldeetacolaratzai, eta esan albalecee, esango luquee zuri guertatu zatzun gucia, eta gueyago*¹⁹...

“Iturria” kanpoa da, baina ezin du hitzik egin, “labea” eta “laratza” etxe barrukoak dira, baina, era berean, ezin dute hitzik egin. Idazleak kanpotik

¹⁸ MADARIAGA, Bartolome, “Prai Bartolome de Santa Teresa”: *Jaungoicoaren amar aguindu-beetaco leleno bosteen icasiquizunac, I.*, zatija, Iruñean, Rada, 1816, 224 or.

¹⁹ AGUIRRE, Juan Bautista: *Jesu-Christo, eta Virgîna Chit Santaren Misterioen, eta Beste Cembait gaučen Gañean Eracusaldiac III*, 490or, Tolosa, 1850

barrurako ibilbidean “iturri”, “labe” eta “laratz” aipatzen ditu, azken honetan indarra jarritz.

Euskal idazle zaharrek, euskaldunek zituzten sineste edo sineskeria txarrak edo “zoroak” burutik kendu eta arrasto onean sartzea nahi zuten. Garai bateko euskaldunen sineskeria hauek bide batez bezala aipatzen dituzte zenbait idazlek. Gaur eguneko begiz ikusita pasarte hauek urregorri fina balio dute. Hona hemen, kasurako, Astarloak dakarren hau:

Laugarrenago: eguiten dabe pecatu guexoric dagozarian bide bagaco medicina, edo gaucen batzucac osatu nai dabeenac. Itericija, edo laruba dauka? Ea bada, evagi oin, edo zapatien neurrico inchaur azala, esegui zugateco laratzuban, eta celan doian sicutubagaz inchaur azala, alainche juango da osatubagaz guexua. (...) Cembat onelaco zoraquerija, eta sinisquerija ero eta burubagaco ete dagoz? Neure enzula maitiac, oneec gustijoc demoninuaren asmuac dira; eta ceuben ez jaquinac, edo sinciltasun, edo simplicidadiac escusetan ezpazaitube, pecatu mortalac. Badaquit Jaungoicucac bedar, arbola, eta beste gauza ascotan ichi deuzcuzana gueure gachen osasunguei, edo medicinac; baña au izan oi da, edo arturic aotic, edo ifnijagaz min dan lecuban. Baña, cer dauca cer icusi, laratzuban daguan inchaur azalac, zure itericija, edo larubagaz? Ce indar gueijago euqui leique, oin, edo zapatien neurricua izanac, gueijago guichijago, andijago, edo bedarrago izatiac baño? Bardin dinot, beste artu oi dirian ganora, eta buru bagaco osaguei, edo medicinacgaitic²⁰.

XIX mendeko hasierako urteetan behintzat, Bizkaiko Durangaldean uste zen *minoría*, *larua* edo erdaraz “ictericia” sendatzeko nahikoa zela zapataren neurriko intxaur-azala laratzean eskekitzea pertsonaren azala ere sendatzeko. Astarloaren pasarte honetan gertaera majiko baten berri ematen zaigu, pentsamendu majiko bati dagokiona. Sutako laratzean lehortu ahala intxaur-azala, gaixoaren azala ere sikatu egiten da. Literatura zahar grekoan ere antzeko zerbait gertatzen da: Meleagro jaio eta zazpigarren egunera, Moerak agertu omen zitzaizkion Altea bere amari, semea laratz (azpia)n zegoen egur-enborra erre zedinean bere seme jaioberria hilgo zela adierazteko. Meleagoren amak, hori entzun ondoren, laratzeko enborra itzali eta kuxa batean sartu omen zuen. Meleagrok bere osabak hil zituenean, Altea amak, erabat samindurik, kutxan gordea zuen zoritxarreko enborra erre zuen. Enborra erre zenean Meleagro hil zen²¹.

LARATZA IGARKIZUNETAN

Sutondoa zen, garai batean, eguneko lanak bukatu ondoren etxeko guztien bilduleku. Sutondoan egiten ziren, etxeko guztiak elkarturik zeudela, artozuritzeak. Artazuritzeetan kontatzen ziren ipuin, pasadizu, esaundak. Artazuritzeetakoa da garai bateko eta ia oraintsu arteko aho-literatura. Sutondo-

²⁰ ASTARLOA, Jose Patricio de, *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecucac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco-catecismua. Eurretan aurquituco dabe Arima-zain euscaldunac, euren Elextar edo Feligresai predicatu biar deutzen icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen... II*, Bilbao, E. Larumbe, 1816, 38 or.

²¹ Literatura klasikoko pasarte hau ikusi nahi duenak Bernardo Atxagaren hitzez, jo beza *Obabakoak* lehen edizioa 275 orrialdera.

²² Laratzaren gainean bi konparantza modu egon daitezke. Bata *laratza baino beltzagoa*, geroago ikusiko duguna, eta, bestea, *laratza bezain ixil*. Hona Anjel Lertxundiren Munduaren neurriak lanetik

an ere aitona-amonek kontatuko zituzten igerkizun edo papaitak. Laratza garai bateko eta ia oraingo ipuinen lekuko isil izan da²². Dena entzun baina ezer esan ezin! Laratza mutua da, hutsik dagoen amonaren aulkia bezalaxe. Ipuin-egarri den poeta batek ezin du ezer atera auki-laratz mutuetatik. Horrexegatik poeta handi baten nahigabea. Lizardik “Euskal Pizkundea” olerkian honelaxe dio *IV Amonaren aldialago sutondoan;/ aren ipuirik al dek/ ik jaso gogonan?! Ik ez? Laratzak? Ez'ta!.../Ez uste gozoan/ geunden, ta gure pozal/ betiko da joan.*

Laratzaren aurrean esaten ziren, garai bateko baserrietan, esanbehar guztiak. Orain arteko Euskal Herriko laratzek entzundako kontu, kantu eta ipuinez liburuak idatziko bagenitu, munduko herri-literaturarik aberatsena izango genuke, inolako zalantza arriskurik txikienik gabe. Zoritxarrez gure herri-literatura mugatuegia da. Eman ditzagun, diogunaren indargarri, igarkizun-adibideak. Haurrek edo mutiko-neskatoek begien aurrean zuten “zerbaiten” gaineko igarkizun bat asmatu beharko zuten. Horrexegatik dira aberatsak tankera honetako igarkizunak. Suaren gainekoa da, esaterako, “*Egun guzian kakiten eta atsian bere kakaz estalzen*”, erantzuna “sua” da. Labearen gainekoa ere badago: “*Agotik so egin eta kostelet guziak ageri*”. Laratzaren gaineko igarkizunak, beraz, ezin zuen huts egin.

Ditugun igarkizun-bildumatxoetan laratza zer den agertzen diren zenbait ale baditugu. Has gaitezen zaharrenetik. Çercandek dakarren *20-Etxhian emaztebat luce, beltz, ezpain okher batequi? Laatça*. Gisa berekoa da *Zuhur hitz* liburuan agertzen dena *1880-Etxeko jaun ezpain makur batekin: laratza*. Azkuek berak ere bildu zuen *31-Atxo xahar-xahar bat ezpain makhur batekin* (BN?-L) *68-Etxeko jaun ezpain-handi*.(L) *69-Etxeko seme zarren zarrenak ezpeina makur* (Aezkoa), *100-Itxean itxeko seme bat bakarra ta hura ezpain-makurra*. (AN-Ulzama), *Vinson 53-Etcheko jaun ezpaña handi*-Lahatza. (Marceline X., Ainhoa, 1880ko urriaren 16) *Atcho chahar chahar bat ezpain makhur batekin* (Léon H., Cambo, 1881-ko urriaren 19).

Orain arteko igerkizunak desberdin itxura izan arren, berdin berdinak dira funtsean. Ia guztietan etxe hitza aipatzen da, esaterako, *etxeko jauna* edo *atso zaharra* edo, azkenik, *etxeko semea*. Guztiek dute, hala ere, bukaera bera *ezpain okerra* edo *makurra*, alegia. Delako ezpain makur hori da igerkizunaren gakoa, giltza. Laratzak muturrean duen kakoa da, hain zuzen, “ezpain makurra”. Berdin da “ezpain makurduna” semea edo etxeko jauna edo atso zaharra izatea, nahiz eta irudiaren ederrari oihartuz gero, gu geu atso zaharrarekin gustorago gelditu. Igarkizun honek uste baino oihartzun handiagoa izan duela pentsatzeko arrazoirik badugu. Zuberoan “laratz” adierazteko “la(r)atz” hitzarekin batera *bidarroker* ere esaten baita, Junes Casenave-Harigilek dioskunez. “Bidarroker” ez da besterik (*k*)*okots oker*, edo *mutur oker* baino, eta hau, *ezpain oker* delakoaren antz antzekoa da. Errefrauetan ere agertzen da irudi edo metafora bera, Mokoroaren zein Gotzon Garateren bilduman *8851-Laratzak muturra beltza* ikusten dugu. Laratzaren *muturra*, bistakoa denez, *kakoa* da irudi bidez emana. Zuberoako hiztegian, Caseneveren testigantza arauera, irudi-mundu bera adierazten du laratzaren kakoa adierazteko “*croc de la crémaillère*” *laratzezpain*

lehen orrialdeko pasartea “*Etxeko laratza bezain isilikegon da erasoak irau duen donboran. Ordu erdi luzea jo du erasoak*”.

delakoak. Hitz honen bidez adierazten baita, oraingoan bete betean, *ezpain* hitza konposizioan²³. Igarkizunetan ematen den irudi-mundu hori ez da testigantza hauetan bukatzen. Bilatu dugu besterik ere. Henri Duhau-ren *Hasian hasi Beskoitzeko euskara* lanaren bukaera aldera agertzen diren istorioetako batean (“Saguaia itoa!”), honelaxe dator pasarte batean: “Behin, esnea egosten ari, suian-orduian ez baitzen bertzerik-kaxa neskatotan, laratzetik dilingo”. Kaxa delakoa frantseseko *casserolle* edo “galdara” bat da eta *neskato* hori “suspension pour crémaillère edo, bestela esan, “laratzaren kakoa”, alegia. Ikusten denez, irudi-munduak edo metafora-munduak aurre artu dio jatorrizko hitzari²⁴. Irudi-mundu harrigarri hau aberastera dator Gotzon Garatek bildu duen igerkizun bikain hau 8846-*Zein da etxeke berri ondoen dakien amona ezpainokerra? Laratza*. Igarkizun honetan, gorago azalduetako *amonaeta ezpainoker* irudiez landa, bada besterik ere: laratza etxeke gauza guztien testigu ixila izatea. Jakintsu bezain mutu da etxeke laratza, beti ixilik egongo den etxeke begirale mutua.

Beste irudi-mundu bati, ez hain aberatsari, dagokion igarkizun-sail bat ere badugu. Hona hemen zenbait adibide:

Azkueren bildumakoak dira ondoren etorriko diren hauek. 132-*Maila ta maila ta punturik ez* (AN: Larraun). 162-*Xilo xiloaren gainean* (AN: Eaurta Saraitzun) 183-*Zulo ta zulo, amar amar mila kakazulo*. Aldaerak 1-*An zulo ta emen zulo, emeretzi kakazulo* (B. Getxo). Bigarren aldaera *Zulo ta zulo ta emeretzi kakazulo, guztiak kakaz beteak* (B. Murelaga). Hirugarren aldaera *Zulo ta zulo ta petaxurik ez* (AN. Arakil, Irañeta)²⁵. Federiko Garraldak ere bada kar Saraitzuko igarkizun batean 8-*Xillua xilluan gañan. Zer da? Laratza*. Laratzeko katearen eraztunak, katenmailak edo ouak adieraziak daude zilo hitzez. Zenbat dira laratzaren katenmailak? Hemeretzi, beharbada, errealitateari dagokio, bi aldiz agertzen baita. Mila zenbakia, aldiz, askotasunari. Bi igarkizun-sailen artean, lehenak kakoa hartzen du irudigai, bigarrenak, aldiz, katea. Laratzaren bi zati nagusiek, beraz, beren irudigaia dute. Irudi-mundu biak eder baino ederragoak iruditu zaizkigulako eskeini dugu artikulu honetan berariazko puntu.

LARATZ, ESKARATZ ETA SUTE HITZEN GAINEAN

Dauden aldaera guztiak honela laburtuko genituzke. Batetik, bukaerari dagokionez, *laratz/laratzu* ditugu, eta, bestetik, hasierari dagokionez, *gelaratz/laratz*, hots, (ge-) aurretik duela. Oinarrizko aldaera hauek kontuan harturik, hainbat aldaera daude. Ez da gure asmoa guzti hauen berri ematea. Azkuek, Lhandek eta abarrek egindako lanetara jotzea aski da. Aldaeren laburpen ezin hobe bat *Orotariko Hiztegian* dugu. Atal txiki honetan zilegi bekit beste hitz batzuen berri ematea, Bizkaiko ekialdean *eska(ra)tz* eta mendebaldean *sutedira*, orohar, erabiltzen diren hitzak sukaldean adierazteko. Bizkaiko ekialdean, Markinaldean eta abarretan, “sukalde” esateko *eska(ra)tz* esaten

²³ CASENAIVE-HARIGILE, Hunes, *Hiztegia Français-Euskara Züberotar eüskalkitik abiatzez*, 1989, Lizarra (Nafarroa).

²⁴ Erdarazko terminologia badarabilgu “el término imaginario ha implantado al término real” adieraziko genuke.

²⁵ AZKUE, Resurrección Maria, “Igarkizunak” in *Euskera* VII urtea-II zenbakia 1926 yorrailla-bagilla 3-44or.

dugu, nahiz eta sukalde hitza guztiz ezaguna izan. Kontu jakina da delako eska(ra)tz hori ekialderago, *atari* edo *etxe-sarrera* dela. Antonio Tovarrek eta Manuel Agudek egindako *Diccionario etimológico vasco* lan ederrean agertzen diren hitz-jatorri edo etimologiaz landa, eman dezagun haintzat beste bat: *etse+laratz > > > eskaratz. Etimologia ez da gurea L. R. Gonzalez de Viñaspre²⁶ baizik. Garai zaharagoetan gure eskaratz delakoak beste zentzu zabalago edo desberdinago bat izango zuen, hots, erdarako “hogar” edo “frantseseko” foyer. Horren lekuko dira 1596-ko RS 469-*Ezcaraz baco effea ta andra lofaguea, ta ypiridico puza guftia onez huffa*. Itzulpenean *Cafa fin fogar y muger fin verguença, y foplo de culo, todo vacio de bien* Bigarren ale bat ere badugu: RS 238-*Seiac danzuana efcarazean efan daroa ataartean*. Itzulpenenean *Lo que oye el niño en el fogar fuele dezir en el portal*. Bi adibideetako itzulpenean *fogar* agertzen da, hau da, supazterra. Etimologia honen arauera, *eskaratz* hitzak, nahiz eta hasieran *laratz* edo *supazter* adierazi, gerora “sukaldea” adieraztera pasatuko zen. Guzti honekin zerikusia izango luke, nolabait bada ere, Arantzazu aldean esaten den “su-etxea” *sutokia* adierazteko. Perpetua Saragetako hasierako azalpenean ere, *sukaldeko supezterra* dio garbiki, *sukalde* eta *supezter* hitzak eta kontzeptuak erabat bereziz.

Bada Bizkaiko mendebaldean sukaldea esateko beste hitz bat: “sutea”. Hitz honek aldaera zenbait baditu, sute, suite eta abar. Testu zaharretan, ordea, forma zaharago bat agertzen da: “sugate”. XVI mendeko Landuchioren hiztegian aurkitu dugu lehen testigantza. Harrez gero XIX mendeko Astarloaren *Urteco domeca* lanean ere agertzen da. Bi garaien hauen bitartean ere, bada dira hona ekarriko ez ditugun testigantza gehiago. *Sugate* delakoa ez ote da *su* eta *kate* hitzen eratorria? sukatea ez litzateke besterik izango laratza baino, gure uste apalean. Era horretara, *ezkaratz* zein *sugate* bat letozke esangura zahar, zein berrian.

LARATZ ESAERA ZAHAR ETA ERRAMOLDEETAN

Esaera zaharren alorra dugu ugariena laratz tresnari dagokionez. Ohiturak eta sineskeriak galdu diren lekuetan ere, esaera zaharra gorde egin da. Has nadin neuk entzundakoetatik. Esaerarik ezagunenetako bat da, nik ere neure kaleko etxean, beheko surik gabekoan, behin baino gehiagotan entzuna: *Bere etxeko laratzak esautuko dau*. Pertsona bat kalean edo lagunartean era batera agertzen denean, eta etxekoen artean beste batera. Hau dugu esaerarik ezagunenetakoa. Laratza sugarrek milikatzen dutenez gero *beltza* da eta horrexegatik esaten digu Jose Ramon Erauskinek *Bat asarre ikusten bazan, ala esan oi zan: “Or dabil laatza baño mutur beltzagoarekin”* edo *etxe batean edo bestean fameliaren artean ezin konpondu bat sortzen bazan, “Etxe guzietan laatzak beltzak!”* *esan oi zan*. Erauskinen lehenengo adibidean, laratza erramolde edo “modismo” batean erabiltzen dugu. Laratza beltza denez konparagai hartzen dugu eta *laratza baino mutur beltzagoarekin* haserrea adierazten dugu, norbait haserre dagoenean laratza bezala “erreta” dagoelako eta “mutur” edo “aurpegiera” beltza duelako. Delako erramolde hori berez errefrau baten

²⁶ GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, L. Roberto, “Ezkundu hitzaren etimologiaz” in *Euskera* 1986, 1

gainean eraikia dago. Errefaua artikulu honetan behin baino gehiagotan ikusi dugun *Laratzak muturra beltza* da²⁷. Bigarrena, ordea, *etxe guztietan laatzak beltzak* esaera zahar bat dugu. Esaera zahar honen erdarazko ordain ezaguna: *En todas las casas cuecen habas*. Erdarazko esaera horrek badu, zenbaitetan, gehigarri edo luzagarri bat ia edozein hiztun erdaldunen konpetentzia linguistikoan sartzen dena: *Y en la mía calderadas...* Euskarazkoak ere, erdarazkoak bezalaxe, badu gehigarri edo luzagarria eta *Gurean beltzagoak...*²⁸ Agustín P. U. Iturriaga alegigileak XIX mendean “Errementaria eta zakurra” alegiako aterakizuna edo moraleja honelaxe adierazten du: *azkenik beste etxel aberats batean/ gau t'egun an daukate/ loturik katean. Onela ikusten duldirala laratzak, errian diran etxel/guztietan, beltzak,/eta lan egiteko/gure Jaungoikoa/guztiok gaituela/egiten astoak*. “Beltza” adjetiboa hain dago laratzari lotua, nola baitago “ilun” gauari edo “zuri” elurrari, edo “gorri” odolari. Horrengatik beragatik Bizkaiko zenbait tokitan nekez entzungo da *laratz* bere hutsean. *Laratz(u) baltz* da Bizkaiko mendebaldeko zenbait tokitan, eta, *laratz* bere hutsean nekez. Kasu honetan epiteto baten aurrean gaudenik ezin uka²⁹. Bizkaiko mendebaldean, Zeberion, kasurako, Juan Manuel Etxebarriak bildutako esaera zahar bitan: *Laratzu baltzak berbas baleki*, batetik, eta, *laratzu baltzak esotuko dau*, bestetik³⁰.

Esaera zahar gehiago ere badira, hona zenbait.

Bizkaiko errefraurik ezagunenetako bat *Aberatza inpenuko lebatza, pobrie zeruko lorie* da. Aberatsa, beraz, infernuko lebatza omen da. Zer da, ordea, *lebatza*? Bizkaian, eta ni ere zaku berean sartzen naiz, beti pentsatu dugu “lebatza” guztiok ezagutzen dugun arrain ezaguna dela, baina kontua besterik da, inolako zalantzarik gabe. “Laratz” hitzaren aldaera batetik, labatz-etik seguru asko, lebatz-era egin dugu jauzi. Jatorrizkoa, berez, *aberatsa infernuko laratza*,... litzateke. Aberatsa, behin mundu honetako lanak bukatu ondoren, betiereko infernuan erretzen edo kiskaltzen egon behar duelako, laratza beheko suan kiskaltzen dagoen bezalaxe. Zergatik egin ote da bada, aldaketa hori? Arrazoi guztien berri ez dakigu, egia esan. Arrazoietariko bat, behar bada, beste errefrau elebidun batean legoke *lebatz para la gente aberatz* bezalakoan. Gipuzkoan ere badirudi aldaera bera egon dela *Aberatsa infernuko lebatza*. *Pobria zeruko gloria ematen* baitu Graziano Anduagak³¹. Bizkaian aurkitzen diren aldaera guztiak ez dira *lebatza* hitza dakartenak. Azkuek EY-1844-*Aberatsa, inpernuko lebatza, pobrea zeruko lorea* ekarri arren, *Aberatsa inpernuko laratza, pobrea zeruko lorea* ere badakar zenbaki berean. Eibarko aldaera *Aberatsa, infarnuko laratza; pobria zeruko loria* da eta berdin dakar Goizon Garatek. Nafarroan ere bildu du aldaera bat Damaso Intzak: 769-*Pobre-*

²⁷ Badira zenbait adjetibo esanguratsu euskaraz. Adjetibo horiek *mutur* hitza dute oinarritzat. *Muturzikin* gaizki-esalea bada, *muturbeltz* haserrekoa, erdaraz *hociudo, adusto*...Badira gehiago ere, bakar batzu esatearren: *Muturzimur, muturzuri*.

²⁸ Julian Alustizak, “Aztirik”, honelaxe dio: “Arantzazu mendian Aizkirri baserriko Bittori amandreak hau erantsi ohi zion beti: *Gelaatzua, etxian, etxian baltza eta gurian baltzagua*.” Aipatu *Euskal baserriaren inguruan* 51or.

²⁹ Badira hainbat adibide gehiago ere. Bizkaialdean *bele/a* hitza ere *baltz* epitetoarekin agertzen da aho-hizkeran. *Bela baltza ikusi juat* eta abar. Gipuzkoako tradizioiko ipuinetan, deabrua *etsaia* da edo *inpernuko etsaia*. Beste adibide askotan *gaiztoe* pitetoarekin, hau da, *etsai gaiztoa*.

³⁰ ETXEBARRIA, Juan Manuel, *Zeberio haraneko azterketa sozio-linguistikoa* Argitaletxea IKA Euba 1991.

³¹ ANDUAGA, Graciano, *Aitonaren uzta* Editorial Itxaropena, Zarauz, 1961, 40or.

za zeruko lorea: aberatsa, infernuko suatsa. Intzaren aldaeran *lebatz/legatz* edo *laratz* izan beharrean, beheko suarekin zerikusia duen zerbait agertzen da *suatsa*, hau da, sutako hautsa.

Intz 283-*Etxe guzietan laratza beltza...* Denetan izaten naigabeak eta ez-bearrak. Inz 426-*Gure irabazi guzik laratzak eramaten dizkigu...* jateko bear dugunak eramaten. Intz 796-*Bakoitza nola bizi den, etxeko laratzak daki*. Es-tutasun asko ixillik gordetzen dira, iñori deus agertu gabe. Intz 829-*Laratzak muturra beltza du...* Laratzak kedarrez belztua egoten dela, egia eta sukalde-ak asko eskatzen duela ere bai. Intz 2236-*Nagi-ure laratzian dago* (Eugi). Na-giaren, alferren ura laratzian dago, nagieren zai. Azkue 1408-*Ilunabarrean pertza laratzean ta neskatxa eetxean*. Azk 1431-*Laratzak ezagutuko du nor no-lakoa dan* 1660-*Mendatan atsoak guztiak saldatan; Arratzun atsoak guztiak la-ratzun; Ajangizen atsoak guztiak gizen gizen*. Azk 1844-*Aberatsa, inpernuko le-batza; pobrea, zeruko lorea* Zuhur hitz 1025-*Laratzak badaki etxeko berri*.

Erdarazko errefrau ezaguna den *En casa del herrero cuchillo de palo* dela-koaren euskal ordain ugari ditugu, ezagunena *Harotzaren etxean burduntzia zurez izan* daiteke. Errefrau honek, erabat hedatua dagoenez, baditu hainbat aldaera “gerren” izan beharrean izan daiteke “kapitxalea” edo “pala” edo “zu-rezko gerrena” eta baita “laratza” bera ere. Erdaraz ezaguna da “En todas las casas cuecen habas” esaera. Julian Alustizak Arantzazun bildu zuen Aizkirri baserrian *Galatzua, etxian, etxian baltza eta gurian baltzagua!* Esaera hau li-tzateke azalez eta mamiz erdarazkoaren kiderik bete-beteana.

Esku artean berriki hartu dugun Gotzon Garateren lan mardul bezain ederrak badakartza hainbat. Hona zenbait: 8849-*Etxeko laratzak danak neur-tute duz*. Etxeko laratzak denak neurtzen edo denen berri dakiela adierazte-ko. 8850-*Laratzak galdareari, “Zein baltza zaren!”* Gehienetan *zartaginak gal-dareari...* dokumentatzen dana.

LARATZAREN GAINEKO SINESTEAK ETA OHITURAK

Etxeko baten bati gertaera on eta munta handikoa gertatuz gero, etxeko-en artean ospatu ohi zen. Ospakuntza horretan laratzari “koxka” bat egiten omen zitzaion. Honen berri ahoz jaso dut Pierre Xarritonengandik. Neure lan baten aurkezpenean, lana goraipatzeko Baxanabarren bere etxean gertae-ra on bat ospatzeko laratzari koxka bat egiten ziotela esan zuen. Koxka horri “piko” esaten omen zaio, eta honelaxe esaten omen dute : *Laratzari piko bat emanen zioagu*³². Nire liburua *Laratz bildumako* hirugarrena zenez, ohitura hori esangura berriz jantzia zegoen. Laratza, beraz, koxkatu edo “pikatu” egi-ten zen baina, ez edonoiz. Eman dezadan kasu argiago bat. *Herria* astekarian Mugerre herrian bi ezkontza egon zirela 1960-ko apirilaren bukaera aldera adierazteko, honelaxe dio kronikariak: *Huna egun balios horien ondorio ona. Joan den larunbatian denbora da gochatu, lanoak urratu eta urrundu, zeru cha-harra agertu, iduzkia samindu, Mugerre herria airostu, artzaina deskantchatu. Egun horietan lahatzari piko bat emana izan da, bai eta ere azkenian lahatza-rekin donadoen lerroa trenkatu eta lau gazte plantako dira lerrotik atheratu,*

³² Familia barnean zerbait munta handikoa gertatu baldin bazen emaiten zitzaion *pikoa* laratzari. Herrian zerbait handi eta harrigarri bazegoen, ordea, *Zer idiak eta orgak!* esateko ohitura zuten Baxe-nabarre berean.

Jainkoak bihotzian eman deiari ihardokiz”³³. Esan dugun ohitura honen hirugarren testigantza Gotzon Garaterena dugu 8852-*Laratzak piko bat merezi du*, azalpen hau dakarrela: *Gauza harrigarriren bat gertatzean esan ohi da. Adibidez, norbait aspaldi agertu ez eta agertzen denean.*

Laratzaren etxeko zila zenez gero, ez zela ukitu behar esaten omen zitzaien umei, ukitu behar ez den bezala sutako itxindi edo txingarririk. Arrazoia praktikoa da laratz berotua ukitzen duena arriskuan jartzen delako. Hona hemen haurrentzako debeku batzuen zerrenda: *Erraiten zaiote ere haurrer; gatzaina gordinak jateak, zorriak emaiten dituela tripan; ainharen hiltzeak makur ekartzen duela; ogia gastatzea bekatu dela; neskak xistuz entzutean Ama Birjina nigarrez ari dela; suko laratza hunkitu behar ez dela, ez eta ere suko itxindia, ohean pix ez egitekotz; eta holako...*³⁴.

a) Etxera sartzen diren animaliekin portaera desberdinak egon dira. Perpetua Saraguetak dioenez: *Laratzaren pertza eukitzeko burnia ze. Erosten bazin due ollo bat edo ollarra, txerri tikien bat edo hala, laratzain inguruen pasatzen ze, eta buelta emanez erraten ze: “Etxera bil, etxera bil, etxera bil!” (hiru aldiz) Kanpokoa haurre etxera etortzen baze ere iten ze. Katuei ez; katuek etzue deus baliio. Zein animaliak, etxabereak zein kortaabereak, zein pertsonak etxeratzen zirenean hiru aldiz errepikatzen zen, katuarekin izan ezik. Beste zenbait euskaldunek katuarekin ere egiten zuten. Azkuek dioenez EYI, 41or.-*Kanpotik ekarritako gatua etxerik ineska fan ezta dien: a) laratzari bere inguruan iru itzuli eman bear dazko (BN-s-gar, G-don-ond, L). b) bedaratzüüingürü. (S-bar) c) Sakuan sartuta laratzuari iru buelta emon-arazoten ddakoz. d) Diman auxe esaten da orduan: etserako zara ta etserako izan zatez. Bitoriano Gandiagak Oñatin bildu zuenez *Katu bat kanpotik ekarten bada, gelatxuan-laratzean-iru buelta emon sakuan, edo buztanetik elduta, etxean gelditu dein eta etxekua izan dein (Ladislao Odriozola)*³⁵. Ikusten denez, beraz, animalia berarekin kontrako portaerak agertzen dira. Jose Maria Satrustegik ohitura honen berri ematen du. Batez ere oiloak eta katuak etxeratzen direnean. Etxe berrira ohitu edo ekartzeko dira³⁶. Baserri batean katu arre eder bat erosi omen zuten eta egun batzuen buruan ihes egin omen zuen. Etxeko andreak honela esan omen zuen: *Itsusia! Halta, moda xaharrian iru aldiz inguratia nixin lahatzian!***

b) Laratza ezin da dagoen lekutik mugitu. Etxearen sinboloa da, ardatz eta zila. Sukalde erdi erdian suaren gainean baitzegoen. Horrexegatik ezin zen bere horretatik mugitu. Perpetua Saraguetak dioenez deabruak barre egiten dutelako *Laratzaren etze mugitu behar. Debruek irri egiten zuela erraten zute. Erauskinak ere laratza ezin dela mugitu esaten du: laatz au etxearena izaten zan. Orregatik, iñoiz edo bein baserriko bizi-lagunak edo maiztarrak muatzen baziran ere laatzaren bertan utzi bear izaten zan, ta gañera sua piztua. Norbait etxetik ateratzen bazen, etxea bere oinean eta bere senean jarraitzen zuela adierazteko. Erauskinak dioenez: *Eta bein edozein etxetik bat edo bat asarretu**

³³ “GAZTERIA”, “Mugerre bi ezkontza” in *Herria*, 1960-4-28, 2 orrialdia.

³⁴ X. Z., “Haurkeria sineskeria eta Sorginkeria” in *Gure Almanaka*, 1954, 39or.

³⁵ GANDIAGA, Bitoriano, “Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz” in *Euskera*, 1956, 211or.

³⁶ Honelaxe dio ikertzaile nafarrak, Existe la costumbre de dar tres vueltas a ciertos animales, alrededor del llar. Se practica, sobre todo, con el gato y las gallinas recién adquiridas. Es para que se acostumbren al nuevo domicilio. Vale lo mismo el humo del fogón. “El grupo doméstico de Valcarlos” *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 1969, 115-215or.

ta ateratzen bazan: “Laatza bertan utzita joango da, bai!” Satrustegik ere antzera biltzen du. Diru egarri den gizon zikoitz edo diruzaleaz *Hemengo lahatza hemen utzirik joian*³⁷.

c) Ezin da laratza kulunkatu. Laratza kulunkatzen bada, Jaungoikoa zerutik jaisten omen da. Horrexegatik esaten omen zaie haurrei, Satrustegik esaten duenez,: *Utzak geldirik lahatz hori! Gure Jinkua zerutik jeutsiku huk* (Martíño, Gaindola. 1959). Beste aldaera edo bariante batean, ikertzaile nafarrak dionez, *Jaungoikoak negar* egiten omen du laratza kulunkatzen bada. Gainez egin behar duen esnea ere kontuz erretiratu behar omen da laratze-tik. Satrustegik berak Pekotxetan laratza mugitzen ari zela esaten ziren hitz hauek bildu zituen “*Xingola, mingola/paretai gora!* (Maestria,1958)” Benetan polita da esaera hau. Xingola hitza zinta bat da, eta metaforikoki ximindegitik gora doan kea, zein laratza kulunkatu ondoren bertzetik ateratzen den lurrina. Xingola-mingola herriak egina duen hitz konposizioa dugu, olerkariak behin baino gehiagotan erabilia.

Laratza kulunkatzearen gainean bildu zituen Azkuek sineskera gehienak. Honelaxe dakar 1) *Laratza dinbilidantzan dabilenean, Jaungoikoa nigarrez dago ta laratz gori gelditu bear da.* 2) *Labatza dabilenean “Maria Santisima negarrez dago ta geldi zazu” esaten da Larraunen, Baztanen ere bai. Aezkoan ere beti geldiarazten dute.* 3. A) *Laratzari etxako ibili eragin bear, bestela Txerren zirikatuten ei dau.* B) *“Bego laratz ori” erraiten zakote haurrer, laratza ibiltzen dutenean.* 4) *Umeak eztiote laratzari eragin bear, bestela ogean piz egiten due*³⁸.

d) Morroiek urte bete bateko kontratua egiten omen zuten. Denik kontraturik laburrena urtebete eta egun bat izaten omen zen. Tankera honetako kontratuak egiteko usadioa herri-ipuinetan ere ematen da” Urte bete gabe juaiten bahaiz, ez duk deus ukenen³⁹.

e) *Laratza mozten diat* bildu zuen Azkuek Zuberoako esaeratzat. Adibidea bere hiztegi nagusian dakar. Noiz eta zergatik esaten den erdaraz eman zuen “Desmocho el llar, indicando cuán extraño parece que una persona llegue a un punto donde es esperado y no va casi nunca”.

f) Harrigarriena, adibide bakarrekoa dugu laratza irrintzika gelditzearena umeak eskolara doazenean. Adibidea Azkuerena da: *Gurasoak, beren umeak eskolara igorteko, erraten zaioten: “Laratza irrintziaka gelditzen da, zuek sukaldetik zoaztenean”.*

³⁷ Satrustegi aipatu lana 155or. Hay varios refranes relacionados con este tema. Para el hombre de negocios que se muestra insaciable y para el avaro nato, se dice: “Hemengo lahatza hemen utzirik joain” (Se irá dejando el llar en su lugar).

³⁸ AZKUE, Resurrección María, *Euskalerrriaren Yakintza I*, Madrid, Espasa-Calpe, S. A., 1935, 246-247or.

³⁹ BARANDIARÁN, Jose Miguel, “Materiales para un estudio del pueblo vasco” in *Ikuska* nº 6-7, 183or.

En otro tiempo, al entrar un criado por primera vez en la casa de su amo, se dirigía a la cocina y daba una vuelta alrededor del llar como ya se dijo arriba. Entonces el amo le decía: “Urte bete gabe juaiten bahaiz, ez duk deus ukenen” (Si te marchas antes de cumplido el año, no tendrás nada).